

DUELA 5.000 URTEKO HAURTZAINDEGIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Irak, 1930eko hamarkada. Irango mugan ia, Diyalah ibaitik hurbil, Eshnunna sumertar hiriaren arrastoak induskatzen hasi ziren, Chicagoko Unibertsitateko Ekialdeko Institutuaren gidaritzapean. Sumertar arrastoak nahasita aurkitu ohi dituzte, eraikinak zaharkituta zeudenean birrindu eta txintorren gainean berria eraikitzeko ohitura zutelako. Horregatik zaila izan ohi da eraikinen mugak zehaztea, eta Chicagoko Unibertsitateko arkeologoen aztarnategia alderik alde zeharkatzen zuen bost metro inguruko lubaki zabala induskatu zuten. Interesgarria iruditzen zitzaizen zerbait aurkituz gero, bilaketa eremua zabaltzen zuten.

Horrela, hiriko agintari nagusiaren jauregia aurkitu zuten, eta, alboan, hiri babesten zuen Ninazu jainkoari eskainitako tenplua. Tenpluaren geletako batean objektu bitxiak aurkitu zituzten: terrakotaz egindako arkumeak, gazelak, elefanteak, txakurrak, lehoiak eta beste zenbait animalia. Ez zekiten eskultura txiki horiek zertarako erabiltzen zituzten eta, arkeologoen halakoetan maiz egiten duten moduan, kultu objektu gisa katalogatu zituzten.

Duela urte batzuk, ikerlariak objektuok berriro aztertu zituzten, eta pieza batzuek gurpilak –orduaz asmatu berriak– edota uztaiak zituztenez, jostailuak zirela ondorioztatu zuten. Paul Kriwaczek historiala-



CHICAGOKO UNIBERTSITATEA

riak, *Babylon: Mesopotamia and the Birth of Civilization* (2012) liburuan, horrela deskribatu zuen gurpildun jostailuetako bat: "Hamahiru zentimetro inguru da luze, terrakotaz egina dago, eta ahari buru txiki bat dauka gorputz zilindrikoari itsatsita. Lau gurpil meheren gainean dago eta aurreko aldean soka lotzeko zuloa du. Jostailu soila da, 3-5 urteko haurrek gozatzeko egina. Eta imajinatzen duzu ume bat, due-la 5.000 urte, aharia herrestan eramaten hautsez betetako patio batean edo hiriko kale jendetsuetan". Edo haurtzaindegi moduko batean, jostailu guztiak eraikin baten barruan aurkitu baitzituzten.

Sumertarrak haurren zaintzaz kezkatzen ziren, besteak beste haurren



Ezkerrean, Eshnunnako indusketa lanetan egindako aurkikuntza (1930-1936). Lerro hauen gainean, bertan aurkitutako jostailuetako bat, ziurrenik Paul Kriwaczek historialariak deskribatutako bera.

heriotza-tasa oso altua zelako. Inguru zingiratsu haietan gaixotasunak eta infekzioak oso erraz zabaltzen ziren, eta, ondorioz, pubertarora iristen ez ziren haurren portzentajea oso altua zen. Horregatik, bitartekoak zituztenek ahal zutena egiten zuten seme-alaben heziketa eta osasuna zaintzeko. Hala, Mesopotamiako beste hiri bateko garai bertsuko familia aberats baten langile eta esklabo zerrendan inudeak, haurtzainak eta sendalariak aipatzen dira.

Horrek guztiak ondorio honetara eramandu ditu ikerlariak: Eshnunnako haurrentzat –aberatsentzat behintzat– ezagutzen dugun lehen haurtzaindegia antolatu zuten Ninazuren tenpluko gela hartan. ■



LINCOLN MUMS

Piramideari titulua kendu zion eraikina

Ezagun da Gizako piramidea munduko egitura artifizialik altuena izan zela luzaroan; zehazki, 3.871 urtez. Baina 1311. urtean zerrendako lehen postuan ordezkatu zuen eraikina, Lincolneko katedrala (Lincolnshire, Ingalaterra) ez da hainbestetan aipatzen. Piramideak 146 metroko garaiera du, eta katedralak 160 metro zituen eraiki zutenean.

Inork ez zion katedralari ohore hori kendu, berak bakarrik galdu zuen, eraiki eta 238 urtera, erdiko orratza amildu zenean –eta berreraiki ez zutenean–.

Baina eraikinik garaienaren titulua ez zen Egiptora itzuli, Stralsundeko (Alemania) Santa Maria elizak piramide handienak baino bost metro gehiago baitzuen. ■